



BERRIOBEITIKO FRONTENIS TXAPELKETA 2022

TXAPELKETAREN ARAU OROKORRAK:

Izen emate epea: Martxoaren 11tik- 21era, emailez izen emate orria betetzen eta honako email-era bidaliz deporteyjuventud@berrioplano.es.

Dei hurrrenkeraren arabera izango dira izen emateak eta partehartze topea 16 bikote izango dira.

Prezioa: Doahinik

Datak eta ordutegiak: Txapelketa apirila eta maiatzean jolastuko da, finala ekainaren 5ean edo 19an izango delarik (igande arratsalde). Batez ere partiduak astean zehar 19-21 bitarte eta arratsalde jolastuko dira.

Lekua: Añezkarko frontoian (edo beste batean bikoteak adostua, bere kabuz). Frontoia ordu batzuetan bloketatuko da partidu hauek jolastu ahal izateko.

Emaitzak: Astero wasap taldean klasifikazioak argitaratuko dira.

Sariak:

- 1.Saria: Bazkari 4 pentsonendako + Produktuen saskia.
- 2.Saria: Bazkari 2 pentsonendako + Produktuen saskia.
- 3.Saria: Produktuen saskia.

Baimenak: Izen emateak onakoa onartzea dakar: Wasap talde bat egingo da bikote guztiakin, partiduen nondik norakoak eta klasifikazioak jarri ahal izateko. Antolatzaileak argazkiak egin ahalko ditu.

ARAUDIA:

Txapelketaren nondik norakoak araudi honetan jartzen duen arabera izango dira. Joko sistema mixtoa izango da, klasifikazio fase batekin hasierako liga sistema batekin jolastuta eta gero fase eliminatoria bat eginez, beti ere, apuntatutako bikote kopuruaren arabera. Antolatzaileak, bikote kopuruaren arabera, koparen fasereko beharrezko gurutzeak erabakiko ditu.

Partiduak 33 puntuetara jolastuko dira hasierako ligan eta 25 puntuetara fase finalean. Txanpon bat airera botaz erabakiko da partiduaren hasierko sarea. Tanto bakoitzaren sarea 4tik aterako da, "FALTA" izango delaki 4an bertan eta "PASA" 7an.

Puntuazio sistema:

Partidu bakoitzaren ondoren honakoa izango da puntu banaketa:

- 2 puntu irabazleentzako.
- 1 puntu galduenarentzako.
- 0 puntu, orduz kanpo agertu den bikotearentzako, 10 minutu utziko direlarik.

Klasifikaziorako kontuan izango diren irizpideak honakoa hauek dira:

- 1. Lortutako puntuak.
- 2. Tantuen diferentzia.
- 3. Aldeko puntuak.

Partiduen antolaketa:

Antolatzaileak Drive dokumentu batean jardunaldiak eta partiduak jarriko ditu. Bikoteak beraien artean hamankomunean data bat bilatu beharko dute aste horretan (inportantea aurreko astean kontaktatzea). Frontoia erreserbatu egin beharko dute modu orokorrean. Dokumentu konpartitu horretan partiduaren data eta emaitza jarri beharko dute.

Bikote guztiak wasap talde batean egongo zarete, partiduak eta aldatetak zuen kabuz egin ahal izateko.

Epaileak:

Epaileak bikoteak berak izango dira.

Aurrean jarritako bikotea bertako bezala hartuko da, eta partidua jolas dadin pilotak ekarriko ditu. Baita ere, emaitzak wasapen bidez edo emailez partidua bukatu ondoren antolakuntzara bidali beharko ditu eta frontoiaren giltza artu eta erreserbaren ardura izango du.

Bikote bat ez baldin bada aurkezten, besteak wasapen bidez egoeraren berri antolakuntzara bidaliko dio.

Guztion ardura izango da instalazioak eta frontoiak dauden bezala ustea eta ondo zaintzea, hala nola, zakarrak ez uztea eta ekarritako guztia eramatea.

Atzerapenak:

Ezin baduzue jarritako egunean edo ordutegian partidua jokatu, aurkakoekin harremanetan jarri beharko zarete lehenbaitlehen eta aste horren barruan beste data bat bilatu.

Hori bai, **gutxienez 24 ordukin abisatu** beharko duzue beste bikotea, bestela zuzenean 0 puntu jasoko dituzue eta 2 puntu aurkakoentzat.

Data eta ordutegi berria jartzerakoan kontutan izan behar duzue, batez ere Añezkarko frontoian, bere erabilera eta ea libre dagoen.

Antolakuntzak aste bateko epe librea utziko du liga eta fase finalaren artean, jokatu gabeko partiduak egongo balira denbora izateko. Hala eta guztiz ere, azken momentuan ez badira jolasten, 0 puntu jasoko du hasiera batean partidua atzeratu zuen bikoteak, eta 2 besteak.



Ordezkapenak edota lesioak:

Jokalari batek lesionatzen baldin bada edota arazo larriak baldin baditu txapelketan segitzeko, ordezkatua izateko posibilitatea izango da, beti ere, jokalaria berria txapelketan honetan apuntatua ez baldin badago (beste bikote batean) eta bukaeraraino geratzeko ardura hartzen baldin badu.

Antolakuntza edozein aldaketa egiteko gai da behin txapelketa hasita.

LARRAITZ OSES

BERRIOBEITIKO KIROL TEKNIKARIA

TLFA.: 948-303129 (ext 5)

deporteyjuventud@berrioplano.es